



## Gazteen katekesia

## Jarduera

### BERDINTASUNAREN ALFABETOA: egin galderak zeure buruari



- **A**ukeratu bi galdera, eman erantzuna, eta azaldu zergatik aukeratu dituzun bi galdera horiek.
- **A**haleginik egiten al duzu beste pertsonak hobeto ezagutzeko?
- **B**a al da modurik guztiok ezkuzabalagoak izateko, gauza gehiago partekatzeko eta justizia egiteko?
- **D**auden injustizien aurrean, beste aldera begiratzen duzu ala zerbait egiten duzu egoera konpontzeko?
- **E**banjelioak maitasunari eta elkartasunari zenbateko garrantzia ematen dien ba al dakizu?
- **F**amilian hitz egiten al duzue munduan dagoen egoerari buruz?
- **G**aldetzen al diozu zeure buruari zer egin dezakezun inguruan daukazu egoera hobetzeko?
- **H**obeto banatu al daitezke ondasunak munduko gizakion artean?
- **I**maginatzen al duzu zer den ehun mila biztanleko sendagile bakar bat egotea?

- ▶ **J**ainkoa gu guztion Aita al da zure ustez, eta pertsona guztiok anai-arrebak al gara?
- ▶ **K**ristauok zer egin dezakegu Jesusen irakaspenak zabaltzeko?
- ▶ **L**agunekin edo familiarekin hitz egiten al duzu munduan eta inguruan dauden arazoez?
- ▶ **M**unduan ondasun eta baliabide gehiago behar dira, ala daudenak hobeto banatu behar dira?
- ▶ **N**orbaitek ba al daki munduan zenbat pertsona hiltzen diren goseak egunero?
- ▶ **O**so zorrotza al zara zure inguruan daukazu jendearekin, ala haiak ulertzen saiatzen zara?
- ▶ **P**ena sentitzen duzu inguruan jendea sufritzen ikusten duzunean, ala ez zaizu gehiegi axola?
- ▶ **R**obotak bezalakoak izan behar genuke, ala garrantzitsua iruditzen zaizu sentimenduak izatea eta lagun hurkoaz arduratzea?
- ▶ **S**aiatzen al zara hesiak, aurreiritziak, diskriminazioak eta eragozpenak apurtzen? Jarri adibideren bat.
- ▶ **T**aldekideteei zer galdetuko zenieke?
- ▶ **U**topia? Bai, eskerrik asko.
- ▶ **Z**eintzuk dira, zure ustez, munduan abandonatuen daudenak?

● **Zer sentitzen duzu galdera horien aurrean?**

- ▶ Kezka?
- ▶ Urduritasuna?
- ▶ Ezinegona?
- ▶ Haserrea?
- ▶ Zerbait egiteko gogo?
- ▶ Tristura?
- ▶ Erabakiak hartzeko beharra?
- ▶ Zalantza?
- ▶ Aurrera jarraitzeko indarra?
- ▶ Gizakiek gauza asko egin ditzakegula egoera hobetzeko?



● **Galdera horiek eragiten dikizuten beste sentipen batzuk ere erants ditzakezu.**